

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzeko eta ordainketa aldia jakinarazteko iragarkia. 2019ko ekitaldia

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko aldian, 2019ko azaroaren 1etik 2019ko abenduaren 5era bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne.

B) Betearazte aldia: 2019ko abenduaren 9tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko lekua eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei azaroaren 12an kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea, diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalaren duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onartzen duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Iragarkiaren erreferentzia alfanumerikoa: Bo191007B.

Oion, 2019ko urriaren 18a

Alkatea

EDUARDO TERROBA